



XABIER ALDAY

Aro Modernoak

P K Espainiako Gobernua egin zuenean, guztiguztia berri behar zuelako, etxebizitzet buruzko Plan Orokorra hitzeman zuen, non besteak beste, ataletako bat Babes Ofizialeko etxebizitzet buruzkoa izango zen. Gai honetan, gobernu sozialistak interes-tasa baxuagoak eskaini zuen babes ofizialeko etxebizitza bat erosi nahi zuten errenta-baxuko populuari. Hipoteka-kreditoak %12an bazeuden adibidez, diru-sarrerei zegokionez hainbat baldintza betetzen zituztenek, %6,5ean erdiesten zituzten. Gero ordea, sozialisten araudia luzatu zuten. Bitartean, gastu-sozialak murriztuz, European erakusteko emaitza ekonomiko erakargarriak lortzeari ekin zioten. Interes-tipoak behera jo zuten, 91-95 legealdiko %14tik %2,5eraino. Eta hona hemen, non gobernuaren ezinbesteko laguntzaz, diru gutxien zutenek bilakatu ziren etxe bat erosteko krediturik garestienak ordaintzen zituztenak.

1996-1998ra bitartean estatuko gobernuari ez zion denborarik eman hiru urte lehenago ia-ia amaitzear zuen erreforma bukatzeko, eta iazko urte guztia aurrekanpainan eman dutenez, ezin da landu gero agian etekinik aterako ez dioten zerbait; horra zergatik ez duten ezer egin. Ni ere ados nago horrek ez duela Jaur-laritza zuritzen, etxebizitzet kostuaren %50 lurzorua dela zioen, materialak eta langileak %10-%15 inguruan dabiltzalarik. Bigarren albisteak, lehenak eragindako galdera gehienak azaltzen zituen. Lan-istripuen laurdena baino gehiago, eraikuntzan gertatzen omen dira. Aurten dagoeneko 14 hildako izan dira.

Geratu gabe ari dira etxeak eraikitzen nonahi. Gutxi geratuko dira hutsik antza.

Nazio bat garelako nik neuk bozkatuko dut

• ANDOLIN EGUZKITZA •

[IDAZLEA]

Lehenengo argudioa gure ama zenari hainbestetan entzundako argudioa da: «abertzaleok ematen ez dugun boz bakoitza inperialismoaren alde emandako boza da», berak apur bat modu zakarrago batez formulatu arren. Izan ere, horregatik martxoaren 12an aurkeztu diren alderdi abertzaleetariko batek, EA-k edo EAJ-k, neure boza jasoko du, gauden egoeran guztiz garrantzitsua baita abertzaleen aldeko bozak inondik ere ez jaistea. Eta horrek, jakina, ez dauka zerikusirik norberaren izaerarekin, norbera berez naturaz zein borondatez denarekin, alegia, batzuk oraindik ere erabiltzeko prest dauden eskolastika zakar eta amotzarekin, zeren Erdi Aroko fraiderik arlote eta baldresena bera ere ez baitzatekeen horrelako segada argian jausi, horretarako aukera eduki izan balu.

Edozelan ere, lotsagarri deritzot honelako pitokerietan ostera ere ibili beharrari, hots, duela hoge urteko eztabaida antzuak behin eta berriro pizteari. Zertako balio du esperientzia historikoak? Noizdanik norberaren oinarritzko izaera inguruko zirkuntantziek baldintzatzen eta moldatzen dute hain era baldar, toleskabe eta zuzenean? Batzuek, antza, Politzer-en irakurgaiak darabiltzate oraindik orain oheburu eta beren ekintzen artatzaile. Edo eta espainiar-rrak edo frantsesak ote gara karnet bat izen horiekin daroagulako? Edo askok eta askok Espainiako eta Frantziako armadekin soldadutza egin behar izan duelako? Edo beste hamaikak hain urrun ez dauden garaietan eskolaren bateko bailan hegoaldeko erresuma horren himnoa behin baino gehiagotan kantatu behar izan dukeelako. Arazoa, argi eta garbi, Lizarra-Garaziko *izpirituari* eutsita, abertzaleen arteko indarpilaketa da alde batetik, eta bestetik egiten direnak egiten direla eraginkorrak izatea.

Bada, nire ustez, ez bata ez bestea ez da modu horretan lortzen. Indar-pilaketa, beste alderdi abertzaleek on-tzat jo ez dutelako abs-tentzioaren aldeko deia, eta bigarren-erabakia hartzeko erabili diren perspektibak, oker ez banago behintzat, Bizkai-Gipuzkoa-koak direlako, ez Hego Euskal Herri osokoak. Eraginkortasuna halandaze hutsaren hurrengokoa izanen da, azkenengo greba-egunak ezertarako ere balio izan ez zuen bezala, ez batarako, indar-pilaketarako, ez eta besterako, mugimenduaren aldeko eraginkortasunerako.

Osterantzean, egin dagigun argi berba: azkenengo gerran, Molaren armadak eragindako mugimenduen ondorioz, lehen defentsalerro benetakoa Elgetako inguruan finkatu zen, Bizkaiak bakarrik —edo eta mendebaldeko euskara egiten duen lurraldeak bakarrik gurago bada— burruratu zuen independentziaren alde, gure guraso-

ek zioskuten bezala, edota zelanbaiteko askatasuna gauza zitekeen espainiar errepublikaren alde. Oraingoan lurralde horri Gipuzkoa osoa gehitzen zaio. Eta Araba eta Nafarroa? Ez dut esan gura, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko mugimenduak azkenengo herrialde horien abiaduran ibili behar duenik, baina ez gero gugana istorioak kondatzen etor, gauzak behar diren legez ateratzen ez badira.

2. Hauteskundeez entzun ditudanez beste arazo bik bezainbeste asaldatzen naute: diputazioetako gobernuak eta presoen egoera. Lehenengoa orain gutxi-rarteko dogma bat izan da: orain erabiltzen den argudio zentzuzkoaren kontra, h.d., diputazioak udaletatik, eta herri-tarregandik beraz, sorturiko gobernuak zirelako egia-aren kontra, ez zen diputazioetako gobernuetan parte hartu behar. Debaldean zen orain esaten dena hamaikak hamaiketan errepikatu izana, hots, diputazioak udalen gainean eraikitako egiturak direla, eta beraz ez daukatela zerikusirik Espainiar Estatuko egiturekin. Jakintsu batzuk erabakita zeukaten hori sistemarekin kolaboratzea zela eta kitto, ez zegoen zer eztabaida.

Presoen gaian ere antzeko bat gertatzen da. Esanak esan arren, eta gaia zoritxarrez nahikoa gertutik dazagudala daukat eritzi, oraindik ez naiz gauza izan ulertzeko, zergatik presoek bete behar duten agindu moralik zorrotzena ez duten betetzen: edozein modutan espetxeetatik ihes egitea, esate baterako, *Francoren Mugimendu Nazionalaren Hatsuareei* muin eginez, edota guztiz damutu-ta daudela mila bider segurtatuz eta izenpetuz. Ezin dut burutik zentzazioa kendu, legegertsona zorrotz bezain zoli batzuk osterantzeko erabakita daukatelako dela, eta preso- en sufrimenduak eta sakrifizioak zalantzarik gabe errenta askotxo eka- rriko diola Euskal Herriaren askatasunaren aldeko burrukari, baina zenbat ordainduta? Badaukagu eskubiderik hemen hain

eroso eta trankil bizi garenok horrelako gutxi batzuegandik hainbeste eskatzeko? Adibidez, hogeita bat urte ez dakit zein duintasunaren izenean presondegian egon daitezen eskatzeko, edo egunotan bezala Daniel Dergik bezala bere bizitzari uko egiteko?

3. Eta inork zalantzarik bazeukan ikusi duke egunotan alderdi politikoko espainiarrek eta enparauek zer egiteko gauza diren; ahaztu gabe horregatio frantsesen jokabi-



Lehenengo argudioa gure ama zenari entzundakoa da: «abertzaleok ematen ez dugun boz bakoitza inperialismoaren alde emandako boza da»



Lotsagarria deritzot honelako pitokerietan ostera ibili beharrari, hots duela hoge urteko eztabaida antzuak behin eta berriro pizteari